



2008KO OTSAILAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko otsailaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Felix Urkola Iriarte zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren esaten du eguneko gai zerrendatik kanpo bi mozio tratatzeko proposamena egiten duela presazko izaerako gisa sartuz osoko bilkuran. Bi mozioak berak aurkezten ditu Osoko Bilkura honetara eta bata Asier Herrero Sanchezek izenpetutakoa da eta EAE-ANV eta EHAK indar politikoen suspentsioaren ingurukoa da; eta bestea EAJ eta EBren izenean aurkezten dena gai beraren ingurukoa da baita ere.



Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du azkenaldi honetan gehiegitan ematen ari den egoera hau, mozio bat presazko izaeraz sartzearen prozedura horretarakoxe dela eta ez prozedura arrunta sahiestuz maniobra moduan erabiltzeko eta beraz eguneko gai zerrendan sartzearen aurka bozkatuko dutela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du azkenaldi honetan prozedura guztiak presaka ari direla egiten eta ulertzen dutela mozio hau presaka aurkeztu behar izatea eta beraz onartu egingo dutela sartzea.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du beraiek ere egoera oso krispatuta dagoela ikusten dutela eta alde horretatik edozein mozio beharrezko ikusten dutela eta udal honetako edozeinek hitza izatearen eskubidearen alde egingo duela.

Gaia bozketan jarri eta Udal Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EB-B) eta aurkako 4 botuz (PSE-EE, PP) proposamena onartu egiten da.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2008ko urtarrilaren 31n egindako ohiko bilkurako eta 2008ko otsailaren 11n egindako ez-ohiko bilkurako aktak.

...///...

2008ko urtarilaren 31n egindako aktari buruz Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du berak "alkatetzaren ebazpenen berri ematea" puntuan eskatu zituen argibideak ez direla jasotzen.

Idazkariak erantzuten dio berak ez duela hori jasotzea denik kontsideratzen, eta aktak idazterakoan Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak ezartzen dituen jarraibideak jarraitzen dituela.

Akten onarpena bozketan jartzen da eta aldeko 8 botu (EAJ, EB-B), aurkako boturik gabe eta 4 abstentzioz (PSE-EE, PP) onartu egiten dira.

Serna zinegotziak esaten du beraien abstentzioa aipatu gai horrengatik izan dela jasota geratzea nahi duela.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZA LANEN 14. EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hamalaugarren egiaztagiria luzatu du. Hamalaugarren egiaztagiri honen zenbatekoa BERREHUN ETA HOGEITA SEI MILA LAUEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO eta HAMAR ZENTIMOtakoa (226.487,10 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Serna zinegotziak (PSE) egikaritze epeak betetzen ari al diren edo bestela atzerapenak al dauden eta halaber obra amaieraren data zein izango den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio obra zibilaren amaiera maiatzean izango dela eta aurrikusitako epean dihoala. Gahitzen du erabat amaituta izateko altzariak, ekipamendu eszenikoa eta abar izan behar direla kontuan eta guzti hori ea Sanmioletarako amaituta izaten den.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hamalaugarren egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- BENEDITARREN ARTXIBATEGIA EGITEKO LURSAILAREN EROSKETA.-

Alkateak esaten du Beneditarren artxiboa barneratuko duen eraikina egiteko bai Diputaziotik bai Lazkaoko Udalaren aldetik dirulaguntzak ematea aurrikusten dela, horretarako izenpetuta dauden hitzarmenetan baina bestalde beharrezkoa ikusten da artxibo

...///...



...///...

hori eraikiko den lursailaren jabetza herriarena izatea, horrekin, egunen batean Beneditarrak hortik aldegingo balute artxibo hori herriaren eskuetan gelditzea bermatzeko.

Planteatzen den erosketa lauehun eta hamabi koma berrogeita bat metro karratu (412,41 m²)tako lursailarena da, Beneditarren konbentuko baratzean, artxiboa hartuko duen eraikina eraikiko den orubea hain zuzen. Erosketa prezioa hogeita lau mila zazpiehun eta berrogeita lau euro eta hirurogei zentimo (24.744,60 €)takoa izango da, hau da, 60 € metro karratu bakoitza.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du pozten direla oinarrizko ikusten zuten baldintza, hau da, eraikina inoiz udal titularitatetik kanpo gera zedin arriskutik kanpo uztearena, bete delako eta gainontzean proiektuarekin ados daudela herriari onura asko ekar lezaio-kela iruditzen zaielako.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du beraiei ere ondo iruditzen zaiela erosketa hori horrekin inbertitzen den diru publikoak herriaren eskuetatik ez duela ihes egingo bermatzen delako.

Guzti honen aurrean, eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaideen aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Beneditarren konbentuko baratzean, artxiboa barneratuko duen eraikina eraikitze orubea izango den lauehun eta hamabi koma berrogeita bat metro karratu (412,41 m²)tako lursaila erostea. Erosketa prezioa hogeita lau mila zazpiehun eta berrogeita lau euro eta hirurogei zentimo (24.744,60 €)takoa izango da, hau da, 60 € metro karratu bakoitza.

Alkatea ahalmentzea erosketa hau gauzatzera zuzendutako egin beharreko izapideak aurrera eraman eta izenpetu beharreko dokumentuak izenpetzeko.

VO EAE-ANV ETA EHAK INDAR POLITIKOEN SUSPENTSIOAREN INGURUKO BI MOZIO.-

Asier Herrerosek izenpetuta aurkeztutako mozioak honela dio:

EAE-ANV eta EHAK indar politikoen suspentsioa erabakita Espiniar estatuak berriro erasotzen du Euskal Herria. Alderdi Politikoen legea erabiltzen dute herri honen eskubideak jartzeko, egitasmo politikoa lege kanpo uzteko, independentziari ateak ixteko. Espainiar Konstituzioak herri honen geroari itxi nahi dizkio ateak, gatazkaren konponbidea ukatu eta herri honen eskubideak urratzen jarraitu. Hori da, berriro ere, PSOEko gobernuak herri honi eskaintzen diona: errepresioa eta konstituzioa.

Eraso honek ageriago uzten du pairatzen dugun demokrazia eza. Espainiar legedia eta justizia deitzen duten horrek euskal herritarren eskubideak ukatu eta urratzeko besterik ez du balio. Espainiar Konstituzioaren eskutik ez dago euskal herritar izaterik, ez dago eskubiderik, ez dago Euskal Herria.

Une erabakiorra bizi dugu, gure herriaren borondatea ukatzen jarraituko duen Konstituzioari atxiki edo Euskal Herriari erabakitze orubea aitortu eta gatazkari behin betiko konponbidea eman. Alderdi Politikoen Legearen aplikazioarekin bat egin edo euskal herri-

...///...

...///...

tarron borondateari bide eman. Hori da jokoan dagoena, eta horretara dator azken eraso hau. Konponbidearen alde borrokatzen duen independentismoari eraso egiten zaio herri honi iruzur berri egin nahi zaiolako. Une hauetan PSOE eta PNV iruzurra prestatzen ari dira, herri honen eskubideak ukatzen dituen markoa erreformatu nahi dute. Independentziari ateak itxi, gatazkari konponbidea ukatu eta alderdi interesak lehenetsiz egungo markoa iraunarazi nahi dute.

Ez gaude iruzurrak onartzeko prest. Herriak konponbidea eskatzen du, gure etorkizuna libreki erabaki nahi dugu. Ukazioa, inposizioa, errepresioa, Alderdi Politikoen Legea, Konstituzioa. Guztien gainetik herriari hitza ematea, herriak aukera politiko guztien artean, independentzia barne, erabaki dezan, horretan datza nozitzen dugun gatazkaren konponbidea. Marko berri bat behar du gure herriak, marko demokratiko bat Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarentzako.

Aipatu guztiari jarraituz honako mozioa aurkeztzen dugu, udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:

- 1.- Udal honek oso larritzat jotzen du espainiar estatuak EAE-ANV eta EHAK indar politiko-en suspentsioa erabakitzea. Erabaki hau Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta independentzia helburu duen herri sektore zabala kriminalizatzea du helburu, Euskal Herriaren independentziari ateak ixteko.
- 2.- Udalek eta erkundeek herritarren borondatea izan behar dute oinarri, hortaz, herritarren borondatearen aurka egiten duen lege edo erabakiei ez lieke inolako zilegitasunik aitortu beharko, ez eta berak egikaritu beharko. Alderdi Politikoen Legea Euskal Herriari independentismoa jazartzeko erabiltzen da eta hori onartezina da. Espainiar Konstituzioaren eskutik ez dago euskal herritar izaterik, ez dago eskubiderik, ez dago Euskal Herririk.
- 3.- Udal honek proiektu politiko guztien bideragarritasuna aldarrikatzen du, independentzia barne. Hori da, gainera, Euskal Herriak bizi duen gatazkari konponbidea emateko bidea (eskubide guztiak pertsona guztientzat, hau da, proiektu guztiak bideragarri egingo dituen marko bat), Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herritar guztiak proiektu guztien artean erabakitzeke eskubidea errespetatuko duen marko demokratiko bat eraikitzea, hain zuzen ere.
- 4.- Udal honek erabaki honi aurre egiteko KONZENTRAZIOA deituko du, PROIEKTU GUZTIEI AUKERA DEMOKRATIKOA lemapean, eta herritar guztiak parte hartzera deitzen ditu.
- 5.- Onartutakoaren berri emango zaie herritar guztiei zein hedabideei."

EAJ eta EBren izenean aurkeztutako mozioak honela dio:

"Hona, EAJ-PNV eta IU-EBren zinegotzi taldeak, erakunde politikoaren lege kanporaketak gauzatu diren honetan, Udal honi aurkeztzen dion mozioa.

1. Bizi dugun etangabeko eskubideen zapalkuntza ez zaio, inolaz ere, gure herriak behar eta desio duen soluzio bilaketari lagungarri. Soluzioa baitator, batetik, eskubide ororen

...///...



...///...

zapalkuntza baztertzetik eta bestetik, gure herriak bizi duen gatazka politikoa soluzio bidean jarriko duen akordio politikoaren bilaketatik, Herri honi berezkoa zaion erabakitzeko eskubidea oinarri duela.

2. Erakunde politikoaren aurkako lege kanporatze prozesuek, askatasun ideologia, adierazpen askatasuna, elkartzeko askatasuna eta hiritarren partehartzea bezalakoei -guztiak funtsezko eskubide- eragiten diete zuzen zuzenean; halaber, gure Herriko elkarbizitzari, eta gure gizarteak desio duen normalizazio politikotik urruntze gaituzte oso.
3. Indar eta adierazpen politiko orok du, guztiek baldintza berdinetan, Euskal Herriko erakunde guztietako bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko eskubidea, bakoitzari hautesleek eskaini dioten ordezkariaren arabera; eta berriro ere adierazi nahi dugu, azken hauteskundeetan lortutako ordezkariak horri zor zaion guztizko errespetuz egiten dugula lan.
4. Pertsona ororen eskubide guztien aldeko egiazko lanak, eta Herri honi bere etorkizuna askatasun osoz eta demokratikoki erabakitzeko berezkoa zaion eskubidearen aldeko lanak, -bataren eta bestearen aldeko lanak- eramanen gaitu bakea eta gatazka politikoaren soluzio biderantz."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du, lehen esan duen bezala, ez daudela ados mozio hauek osoko bilkura honetan eztabaidatzearekin eta beraz aurka bozkatuko dutela.

Mozioak bozketan jartzen dira eta lehen mozioa, aldeko boturik gabe, aurkako 10 botuz (EAJ, PSE-EE, PP) eta 2 abstentzioz (EB-B eta Garmendia zinegotzia) ez da onartzen.

Une honetan jendartetik Igortz Badiolak hitza eskatzen du bigarren mozio honi buruzko beraien iritzia emateko eta alkateak hitza eman egiten dio.

Igortz Badiolak esaten du EAJ eta EB-Bk aurkeztu duten mozioa paperean idatzita oso polita gelditzen dela baina errealitatea bestelakoa dela. Gehitzen du hautesleek beraien hainbat botu eman zizkietela baina errealitatea dela beraien ez dutela ordezkariarik eta errealitatea ez datorrela bat mozio horretan esaten denarekin.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du alkateari eskatu nahi diotela, bozketa prozesu bat hasten denean, bozketa prozesua hasi eta amaitu egin behar dela eta ez eten norbaitek hitza eskatu duelako.

Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez ziurrenik ere arategi ikuspegitik begiratuta arrazoi izango duela ezbaian jarri gabe, alkateak araudiak interpretatzeko ahalmena ere ba duela, eta interpretazio hau ikuspegi baikorrez eta eztabaida iritzi batekin aberasteko baldin bada eta arauaren espirituaren aurka ez baldin badoa, beraien interpretazio baikor hori egitearen alde daudela.

Guzti honen ondoren bozketan jartzen da bigarren mozioa eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, EB-B), aurkako 4 botu (PSE-EE, PP) eta abstentzio batez (Garmendia zinegotzia) mozioa onartzea erabakitzen du.

...///...



...///...

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

